

Euskara ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko ordenantza

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen bitartez Berangoko Udalak Berangoko herritarrei euskalduntzen laguntzeko politika ezarri nahi du. Udalerriko edozein biztanle onuratu ahal izango da hartaz, adin-tarte, matrikulazio eta bertaratzearen beharkizunak betez gero. Interesatuek diru baliabiderik ez edukitzeak ez du oztopo izan behar euskaldundu ahal izan daitezen, beherago adieraziko diren mugen barruan.

2. artikulua.- Ezarpen eremua

Ordenantza hau 4. artikuluan ezarri diren beharkizunak betetzen dituzten Berangoko biztanleei ezarri ahal izango zaie.

3. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzen zenbatekoa matrikulazioaren eta eskolen kostuaren %50ekoa izango da, gehienez.

4. artikulua.- Dirulaguntzen onuradunen beharkizunak

1. Ikasketak egiten diren bitartean Berangoko Udalerrian erroldaturik egotea.
 2. Interesatuak aldeztatik eskabidea aurkeztea.
 3. Matrikula edo ikastaroaren prezioa aldeztatik ordaintzea, araubidean ezarritako epean.
 4. Diruz laguntzeko eskatzen duen urratsean edo urratsetan ematen diren ikastorduetatik gutxienez %80 egitea edo, auto-ikaskuntzaren kasuan, aprobetxamendu egokia egiaztatu ahal izatea.
- Ondore horietarako ez dira kontuan hartuko behar bezala bidezkotutako hutsaldiak, horien kariak gaixotasuna, osasun kontsulta, baztertezinako betebeharra edo araututako azterketetara joan beharra direnean.
- Ikastaroa amaitu ondoren edo hiru hilero zenbatuko dira egindako eskola-orduak, eta beharkizunak betetzen direla egiaztatuz gero dirulaguntza ordainduko da.
5. Diruz laguntzeko eskatzen duen urratsaren edo urratsen egutegia amaitu artean Euskaltegiko ikasle legez baja ez hartzea.

5. artikulua.- Prozedura eta kudeaketari buruzko arauak

1. Eskabide orriak matrikula orriarekin batera aurkeztuko dira.
2. Behin ikastaroari edo hiru hileko urratsei dagozkien azterketak eginda, ikastegiaren zuzendaritzak dirulaguntzaren eskatzaileen bertaratze eta aprobetxamenduari buruzko txostena emango du eta, hala badagokio, ikastegiak emandako bekak. Tokiko Gobernu Batzarrak txosten hori eta interesatuek aldeztatik aurkeztutako eskabide eta adierazpenak aztertuko ditu.

3. Auto-ikaskuntza ikastaroei dagokienean, ikastegiak eginiko txostena aurkeztu beharko da, aprobeixamendu egokia egiaztatzeko.
4. Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzak behin eskuratzeak ez du esan nahi hurrengo ikastaroetan berez berriztatuko direnik. Dirulaguntza jasotzeko eskabidea eta agiriak ikasturte guztietan edo hiru hilero egin behar dira, eta indarrean dagoen urteko ikastaroak bakarrik onartuko dira.
5. Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, dena delako pertsona onuradunak dagokion zenbateko proportzionala itzuli beharko du, zenbateko osotik gora Berangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

6. artikulua.- Aurrekontuko zainpeketa

Udal Aurrekontuan ordenantza honetan araupetutako dirulaguntzek behar dituzten zuzkidurak egingo dira, aurrekontuko 451.480.01 partidaren pentsura. Dirulaguntzen guztirako zenbatekoaren gehieneko muga adieraziko da.

7. artikulua.- Urratzeak eta zehapenak

Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzak jasotzeko baldintzei dagokienean maula eginez edo datuak ezkutatzuz egiten diren urratzeek dirulaguntzen ezeztapena eta jaso behar ez ziren kopuruak itzuli beharra eragingo dute, bidezkoak diren lege egintzen kalterik gabe.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.